

Bergarako astekaria

Berrigara



Modeloa: Yoana Nieto

la mode

Bergararrak modari begira



LARUNBAT
ARRATSALDEETAN
IREKITA



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK



Garibai 6, ARRASATE.
Tf. 79 97 86.

MERKEALDITAN GAUDE! ZATOZI!

UME

ETA ORAIN


JAIO BERRIARENDAKO OSAGARRI GUZTIAK

HAUR ETA GAZTEENDAKO MODA




ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korrante alerno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA Telefonoa: 943- 76 64 14 Faxa: 943- 76 62 99



Ale berri on!

Eneko Azkarate / BERRIGARAKO zuzendaria

Joan zen abenduaren 14an bete ziren zazpi urte Berrigararen lehen alea kaleratu zenetik. Orduetik hona etengabeko bilakaera ezagutu du astekariak, hasierako aleei gainbegiratua ematea besterik ez dago hori ikusteko. Poliki poliki ale kopurua gehitzen joan da eta gaur egun, oraindik ere, Berrigara etxean jaso nahi dutenen eskaerak jasotzen ditugu; lehen Berrigarak 16 orrialde bazituen, gaur egun 32 orrialde dira...

Itxurari dagokionez, inpresioaren kalitatea hobetu eta gutxika gutxika kolorez betetzen joan da Berrigara. Edukiari buruz beste hainbeste esan daiteke: tarteka sail berriak sortu dira, elkarrizketa edota erreportaiei harreta berezia eskaini zaie eta astean Bergaran gertatutakoaren berri duintasunez eta erarik argienean zuenganatzen saiatu gara.

Halere, errebista egiten dugunok buru-belarri lanean aritu gara azkenaldian Berrigara goitik behera berrizteko eta asko kostata bada ere, eskuarte

daukazu Berrigara berria. Gure erregetako oparia.

Itxurari dagokionez lehenengo begiradan nabarituko dituzu berrikuntzak, Berrigara eraberritua aurkituko duzu. Diseinu garbidun errebista egin nahi izan dugu, informatikak eta infografiak ahalbideratzen dituen teknologia eta teknika berrien laguntzaz.

Baina azala bezain garrantzitsua da mamia. Sail berriak sortu eta irakurleok gustokoen dituzuenak indartu ditugu. Esate baterako, agenda eta zerbitzuen alorrari garrantzia berezia eman nahi izan diogu, kulturari bi orrialde eskainiko dizkiogu, kirolei lau eta iritziari hiru.

"Berrigararen parte hartzeraren gonbidatu nahi zaitugu, denok batera errebista aberastuko dugulakoan. Esatekorik badaukazu adierazi iezaguzu"

Bestalde, euskaraz informatzeaz batera, herritarrei zerbitzu bat eskaintzea da gure nahia: herrian gertatutakoaren berri emateaz gain, errebista kontsultarako ere erabilgarri izatea.

Kolaboratzaileen sarea indartu nahi izan dugu eta horretan zuk zeuk, hau irakurtzen ari zaren horrek, garrantzia berezia izango duzu aurrerantzean. Benetako komunikazioa lortu nahi dugu; horretarako, Berrigararen parte hartzeraren gonbidatu nahi zaitugu, denok batera errebista aberastuko dugulakoan. Beraz, zeozer esateko badaukazu ez izan dudarik eta adierazi iezaguzu. Zeure zain gauzkazu.

Bukatzeke, oraingoan nire idatzi honek hartu duen ataltxo honetan dozena bat kolaboratzailearen iritzi artikulua irakurri ahal izango dituzu aurrerantzean. Ez da Berrigarako editoriala izango. Pluraltasuna, hau da, adin, sexu eta ideologia aniztasuna, kontutan hartuz, hamabi herritarren iritziak jasoko ditugu.

Besterik gabe, ale berri on! B

bañuan



Andoni Etxeberria

Jardun Elkarteko presidentea

"Kafe Antzokia Jardunentzat ez ezik, herri guztiarentzat izango da onuragarria"

8. orrialdean.



Laura Ugalde

Moda diseinatzailea

"Gaur egun, moda gune garrantzitsuenak New York eta Paris dira"

17. orrialdean.



Eli Alberdi

Lislore loradendakoa

"Hitz ederrak esan eta jasotzea gustatzen zait; baina uste baino lotsatiagoa naiz"

29. orrialdean.

Orain dela urteak

BERGARAN GERTATUA

1933. Ariznoa Euzko Ikastolak 1933ko urtarrilaren 8an zabaldu zituen ateak, San Pedro kalean, Mozos farmazia dagoen tokian. Zabaltzean 5 eta 14 urte bitarteko 55 neska-mutil hasi ziren eta hurrengo urteetan 62ra iritsi ziren. Maria Ojanguren izan zen irakaslea.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1907. Urtarrilaren 7an Nicanor Zabaleta jaio zen. Harpa gaurkotzeko ahalegin berezia egin zuen, zortzi pedaleko harpa erabiltzen aintzindaria izanik.

MUNDUAN GERTATUA

1959. Alaska EEBBko 49. estatua bilakatzen da urtarrilaren 5ean. 1867an Errusiak Estatu Batuei saldu zien Alaska.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 2

25-32-42-43-48-49 (osag.36/er.3)

Astelehena 5

14-17-29-30-34-40 (osag.20/er.0)

Martitzena 6

22-25-27-30-31-36 (osag.19/er.5)

Eguaztena 7

8-27-28-37-40-48 (osag.49/er.0)

PRIMITIVA

Eguena 1

2-11-30-39-44-48 (osag.36/er.0)

Zapatua 3

13-18-21-23-37-39 (osag.1/er.4)

Domeka 4 GORDOA

17-18-26-36-42-44 (osag.13/er.0)

ONCE

Eguakitza 2

(S. kupoitzarra: 099) 06.376

Astelehena 5

88.380

Eguaztena 7

14.203

GABONETAKOAK

Txapa Irratia

519 / 817

Bedelkar

9.122

Lokatza

3.728 / 2.088

BKE

8.689 / 53.191

EAJ/PNV

5.359 / 7.938

Lagunak


12

Irudi erlojutegia

4.203

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan ez da aldaketarik izango baina domekan hodeiak nagusituko dira eta euri arriskua izango da. Asteburuan giro epela, azken eguntan bezala, baina tenperaturak zerbait behera egingo du. Haizeak hegotik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: Urtarrilak 5



Ilbete: Urtarrilak 12



Ilbehera: Urtarrilak 20



Ilberri: Urtarrilak 28

Eguzkia

Igandean



Sortu: 07:55



Gorde: 18:22

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 1	12	4	-
Eguakitza 2	15	7	5,6
Zapatua 3	20	6	4,1
Domeka 4	20	8	1,4
Astelehena 5	16	6	-
Martitzena 6	16	4	-
Eguaztena 7	16	6	-

hamaika ikusteko jaio ginen!

Hegan egiten duen autoa

"Skyline Event GTS" izena du hegaran egiten duen auto-hegazkin alemanak. 120 kilometro orduko abiadura hartu dezake airean; lurrean ez dabil hain azkar, 30 kilometro orduko hartzen baitu gehienez.

Bizikleta automatikoa

Shimanok bizikletendako kanbio automatikoak kaleratu berri ditu. Manillarrean jarritako sentsore elektronikoko batek, kanbioak automatikoki aldarazten ditu, bizikleta gainean zoazela egiten duzun esfortzuen arabera. Horrela, esaterako, maldan gora zoazenean erreza gertatuko zaizu pedalei ematea.

farmaziak

Ostirala 9 ESTELLA

Matxiategi 5, Bergara Tf.76 19 63

Larunbata 10 MOZOS

San Pedro 4, Bergara Tf. 76 12 15

Igandea 11 MOZOS

San Pedro 4, Bergara Tf. 76 12 15

Astelehena 12 CAMACHO

Oxirondo 4, Bergara Tf. 76 11 74

Asteartea 13 PUY

Barrenkalea 25, Bergara Tf. 78 16 87

Asteazkena 14 GUALLAR

San Antonio 5, Bergara Tf. 76 11 05

Osteguna 15 ESTELLA

Matxiategi 5, Bergara Tf. 76 19 63

ogia

Domeka 11: Mizpildi

telefonoak

Osasuna / Larriadiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larriadiak	76 12 94
Anbulantzia	55 49 62
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00

Garraioak

Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99
PESA	902 10 12 10
Euskotren	45 01 31

Udala

Udaletxea	77 91 00
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Igerilekuak	76 20 51
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

Prensa berriemak

Egin	76 45 52
El Diario Vasco	76 81 57
El Correo	76 10 90
Extra	75 10 59

Bestelakoak

Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Notaritzia	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Jubilatuena Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Jardun	76 36 61
Musika Eskola	76 57 80
Xipizaro ludoteka	76 23 76
Bedelkar	76 04 68

■ jaiotakoak

- BERGARA**
Alaitz Igartua Agirre
 Abenduak 13
Nora Blanco Cerdeira
 Abenduak 21
Urko Sarobe Gabilondo
 Abenduak 27
Miren Irueta Jauregi
 Abenduak 31
ANTZUOLA
Iker Guridi Larrea
 Abenduak 19

■ hildakoak

- BERGARA**
Irene Atxotegi Askasibar
 Abenduak 17, 71 urte
Saturnino Agirrebeña
Uribetxeberria
 Abenduak 22, 88 urte
Noel Gonzalez Mujika
 Abenduak 25, 28 urte
Maria Dolores Uzkudun
Beraza
 Abenduak 26, 67 urte
Dionisio Arruti Mazmela
 Abenduak 27, 81 urte
Elena Lizarralde Elortza
 Abenduak 27, 79 urte
Jovita Morte Frances
 Abenduak 31, 70 urte
Placida Garcia Jimenez
 Urtarrilak 2, 87 urte
Ana Maria Estevez Saenz
 Urtarrilak 2, 69 urte
Julia Egizabal Olabarria
 Urtarrilak 5, 89 urte
Dolores Belaga Romero
 Urtarrilak 6, 93 urte
ANTZUOLA
Jose Manzisidor Mujika
 Abenduak 26, 92 urte


■ mezak

- Santa Marina**
 Domekak: 11:30, 13:00.
 Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
San Pedro
 Domekak: 09:30, 12:30.
 Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Osintxu
 Domekak: 11:30.
 Zapatuak: 19:00.
Elosu
 Domekak: 10:00.
Ubera
 Domekak: 10:30.
San Juan
 Domekak: 11:00.
Basalgo
 Domekak: 13:00.
San Prudentzio
 Domekak: 10:30.
Labegariaeta
 Domekak: 11:00.
- San Lorentzo**
 Zapatuak: 20:30.
Angiozar
 Domekak: 10:30.
 Eguakitzak: 19:00.
Monja Zaharrak
 Domekak: 19:30.
 Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
Mizpirualde
 Domekak: 11:45.
 Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
Mariaren Lagundia
 Domekak: 10:00.
 Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
Antzuola
 Domekak: 09:00, 11:30.
 Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
 Domeka: 10:00.

■ bertako berbak / j.m. elexpuru

Juan Martin Elexpuren "Bergarako lexikoa" hiztegitik hartutako berbak eta esaerak agertuko ditugu astero ataltxo honetan.

Abuelo



Gerra denboran soldaduek, eta baita herritarrek ere, hala deitzen zioten hegazkin frankista bati; begirale lanetan, bonbardeo aurretan ia beti, ibiltzen zen abioi txiki samar bat. Izena, dirudienez, motorrak zahar-hotsa ateratzen zuelako jarri zitzaion.

■ zorion agurrak



Igor Unzurrunzaga
 29 urte beteko ditu gaur, hilak 9. Zorionak zure lagunaren partetik.



Ainara Garitano
 21 urte egingo ditu urtarriaren 11n. Zorionak Burdiko zure lagunaren partetik.




Unai Ziarsolo
 26 urte egingo ditu urtarriaren 12an. Zure lagunaren partetik Zorionak!


Tarte honen bidez lagunak, senitartekoak edo beste norbait zoriondu edo agurtu nahi baduzu, deitu Berrigarara (76 03 97) edo zatorz bertara: Errotalde jauregia z/g. Anima zaitetz!

■ eskela

Noel Gonzalez Mujika



Beti izango haiz gure artean irrifartsu eta alai algara eta poza nonahi tartean hagolakoan bihotzetaraino gaituk hitan blai.



Hire lagunak

1997ko abenduaren 25ean hil zen Bergaran 28 urte zituela.

Eskelak, eskertzak edo urte-mezetarako deiak jartzeko 76 03 97 telefonora deitu edo etorri Berrigarara (Errotalde jauregia z/g).

■ PESA autobusak

- Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 09:00, 11:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 09:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.
- Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.
- Bergara-Arrasate-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 13:30, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 13:30, 14:15, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45.
- Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.
- Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05. Domeka eta jaiegunak: 08:35, 09:50, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05.
- Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.
- Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.
- Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.
- Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.
- Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.
- Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.
- Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.
- Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.
- Bergara-Bilbo.** Lanegunak: 06:35, 08:40, 18:10. Zapatuak: 08:40, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 18:10.
- Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 17:00. Zapatuak: 08:00, 17:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 17:00.

■ antzerkia

► Ados taldearen "Lamiak" antzezlan (euskaraz) Elorrioko Arriola Kultur Aretoan datorren ostiralean, hilak 16, 22:30etan.

■ musika

► Moho taldearen rock kontzertua gaur ostirala 23:00etan Elorrioko Arriola Kultur Aretoan.

► Anestesiaren kontzertua gaur 23:00etan Soraluzean.

► Anari kantaria eta Ruper Ordorika Mugalariak taldearekin bihar zapatua 22:30etan Azkoitiako Baztartxo antzokian.

► Tecno jaialdia Jam aretoan bihar zapatua, gauerditik aurrera, Narco Carola disc-jockey italiarrarekin.

► Def con dos taldearen kontzertua datorren ostiralean, hilak 16, Jam aretoan.

► Zazpi eskale taldeak "Barrenkaleko bluesak" diskaren aurkezpena egingo du datorren zapatuan, hilak 17, Soraluzeako Gaztelupe tabernan, 23:00etan.

■ erakusketa

► Nikaraguari buruko erakusketa Nahikari tabernan igandera arte. Komite Internazionalistak.

ERAKUSKETA

Herriko eskultoreak

Kultur etxea

Ordutegia: gaur ostirala 18:00etatik 21:00etara eta bihar eta etzi, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Urtero moduan, Gabonetako fetxak aprobetxatuz, Bergarako eskultoreek euren lana ezagutzera emateko erakusketa antolatu dute Kultur Etxean. Bertan, Santi Arrieta, Jon Balentziaga, Xabier Diaz de Zerio, Udo Frosch, Nerea Madariaga, Maria Jesus Manzisidor, Jose Jabier Ugalde eta Ascensio Esnaolaren lanak daude ikusgai.

Pintoreen erakusketan egin ondoren, eskultoreen txanda heldu da orain eta herriaren diren eskultore gehienak hartzen dute parte aipatutako erakusketan. Ia kasu guztietan joan zen urtean egindako lanak dira Kultur Etxean jarritakoak. Guztira, 17 eskultura lanez osatutako erakusketa da.

Madariaga, Manzisidor eta Ugalde Simon Arrieta zeramika taldeko kideak dira eta bus-

tinarekin egindako lanak (figurak eta muralak) ekarri dituzte Kultur Etxeko erakuskerara.

Bergaran bizi den Udo Frosch alemaniarra eta Jon Balentziagak, berriz, egurrean landutako eskulturak aurkeztu dituzte eta Xabier Diaz de Zerio bestalde, burdina eta egurra konbinatuz, bi lan aukeratu ditu, "Estela 1" izenekoa bata eta Picassoren "Guernica" koadroan oinarritutakoa bestea. Ascensio Esnaola ebanistik ere eskuekin lan egiteko duen abilezia erakusten digu oraingoan ere. Esnaolaren bi taila daude ikusgai. Bere ohizko estiloarekin (kolore biziko erliebeak) Deba bere jaioterriko Arzabal auzoa eta Arrateko santutegia landu ditu Esnaolak.



Domekara arte Kultur Etxean lanak erakusgai dituzten artistetako batzuk.

► "Laixetan, Garixetan: Basarrixa Eibarren" erakusketa etnografikoa Eibarko Portalea aretoan. Urtarrilaren 26ra arte.

► "Santamasak 97" lehiaketara aurkeztutako argaz-

kiak Arrasateko Monterron jauregian urtarrilaren 18ra arte.

■ lehiaketa

► Amodiozko gutunen VI.

BERRIGARA lehiaketara lanak aurkezteko epea asteazkenean, hilak 14, amaituko da. Lehiaketa honetan 1983an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte eta lanak Jardun elkartean,

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

GAZTELUPE TABERNAN
7 ESKALE

Unai Iturriaga
Igor Elortza
Josu Zabala...

Soraluze.
Urtarrilak 17 larunbata
11etan.

BARRENKALEKO BLUESAK DISKOAREN AURKEZPENA

Masterreka 13an, edo Kartzela Zaharrean, jasoko dira.

► Narruzko Zezen Lehiaketa. Antzerkirako artikulu eta gidioak euskaraz eta gazteleraz izan daitezke. Lanak otsailaren 10a baino lehen helbide honetara bidali behar dira: Narruzko Zezen saria. Egoitz Zentroa (Hezkuntz konplexua). Otaola hiribidea, 29. 20600 Eibar. Argibideak bertan.

Ikastaroak

► Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako argazki ikastaroa astelehenetik aurrera Zabalotegiko lokalean. Bi hilabeteko iraupena izango duen ikastaro honetan, Jose Luis Irigoien eibartarraren eskutik, astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara, klase teorikoak emango dira eta zapatu goizetan laborategiko teknikak landuko dira. Argibideak eta izen-ematea 77 91 58 telefonoan.

► Ana Orgazek zuzentzen duen Arteak eta Kulturak izeneko zentroak (Koldo Eleizalde 2, behea) hainbat ikastaro antolatu ditu otsailaren 2tik aurrera: Arte eta eskulan tailerra (izen-ematea Ardatza eta Igarza dendetan), erlajazioa eta arnas-keta, yogaren hastapenei buruzko ikastaroa eta, azkenik, ahozko teknikari buruzkoa. Azken hiru ikas-

taro hauetarako izen-ematea Etxepare liburudendan. Argibideak 76 35 99 zenbakian.

► Gizartegintzak 60 urtetik gorakoentzat fondoko esko ikastaroak antolatzen ditu. Argibideak 900- 43 43 43 telefonoan.

► Udal Kirol Zerbitzuak haurrei zuzendutako igeri ikastaroak antolatu ditu. Maila ezberdinak. Argibideak eta izen-ematea Udaletxean, 77 91 67 telefonoan.

kintadak

► 1956an jaiotako bergararren afaria urtarrilaren 31n Txuringo jatetxean. Izen-ematea Txuringon, 76 48 63 telefonoan.

deiak

► Gabonetako loterian saritua izan zen Orfeoiko zenbakia (15.098) dutenak Kutzak Plazan duen bulegotik pasa daitezke dirua jasotzera.

► Aranzabal Lagunartek datorren domekan, hilak 18, Racing-Real partidua ikustera joateko autobusa antolatu du. Lagunarteko bazkideentzat 2.000 pezeta eta gainontzekoentzat 4.000 (autobusa eta sarrera). Izen-ematea Deportivo tabernan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

George de la jungla

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

Conspiracion

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

El paciente ingles

Eguena, zine kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Carne tremula

Eguakitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Conspiracion

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Titanic

Eguakitza: 18:30, 22:15.
Zapatua: 18:30, 22:15.
Domeka: 18:30, 22:15.
Astelehena: 18:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 18:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

The Game

Eguakitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

Alien

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

El jorobado de Notre Dame

Domeka: 17:00.

Crash

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ANTZUOLA. Gazinema

Men in black

Eguakitza: 22:00.

Lejos de casa

Domeka: 16:30.

GEORGE DE LA JUNGLA

Zuzendaria: Sam Weisman.

Aktoreak: Brendan Fraser eta Leslie Mann.

Walt Disney produktorearen komedia honetan *George, Tarzan* itxurako baten gorabeherak azaltzen zaizkigu. *Ursula* ezagutu ondoren, basoa laga eta hirira joateko aukera izango du. Baina itzulerako bidaiia egingo du animaliak ehiztarien aurrean defendatzeko...

CONSPIRACION

Zuzendaria: Richard Donner.

Aktoreak: Mel Gibson eta Julia Roberts.

New York-eko hirian lan egiten duen *Jerry Fletcher* taxista, lanean ez dagoenean, izan daitezkeen konspirazio guztiei buruzko informazioa batzen ari da. Gauzak horrela, bere aita modu misteriosuan galdu zuen *Alice* abokatuarekin elkartuko da...

EL PACIENTE INGLES

Zuzendaria: Anthony Minghella.

Aktoreak: Ralph Fiennes eta Juliette Binoche.

Munduko bigarren gerratearen amaieran, Toscanako etxe hondatu batean lau pertsona elkartuko dira: gorputza erabat erreta eta iragan misteriosua duen gizona, hura zaintzen duen erizaina, gerran parte hartu duen gudari bat eta lehergailuak desaktibatzekeko abilezia duen indiar bat. Guztien artean bakoitzaren nortasunaren puzzlea osatuko dute.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA Tf. 76 23 94 - 76 12 65

MUJIKÀ

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Andoni Etxeberriak hiru urte inguru daramatza Jarduneko presidente karguan. Bestalde, Musika Eskolako behin behineko presidentea da Pili Otadui orain dela hilabete inguru dimittitu zuenetik. Jardun eta Musika Eskolari buruz berba egin dugu berarekin.

G. Jarduneko presidente moduan hiru urte inguru eman dituzu. Ze balorazio egingo zenuke?

E. 1995eko uztailen egin zen mintegian Jardunen lau urterako plangintza eta helburuak zehaztu ziren. Ordutik mintegian hartutako erabakiak praktikan jartzen ahalegindu gara. Beste eginkizun garrantzitsu batzuk ere izan dira, esate baterako, Jarduneko barruko egituraketa berrantolatu eta sendotzea, batez ere langileen mailan.

G. Mintegian lau urterako plana zehaztu zen; zer geratzen da egiteko?

E. Bazkideekin izan beharreko harremanak sendotzea aipatuko nuke. Bestalde, Jarduneko bazkideak euskararen eragile izan behar dira, hau da, bazkideak motibatu behar ditugu hainbat eremutan euskararen bultzatzaile izateko.

G. Kafe antzokiaren kontua zela dago?

E. Ariznoa diskoteka zegoen tokian jartzea aztertu genuen eta aurreproiektua egin zen baina arazo teknikoengatik baztertu egin zen. Une honetan diru kontuak eta finantziario moduak aztertzen ari gara. Hasierako inbertsio osoari kredituen bidez aurre egin beharrean, herritarren aportazio ekonomiko posibleak aztertzen ari gara. Honekin, diru sarrerez gain, proiektua sozializatzea lortuko dugu.

ANDONI ETXEBERRIA
Jardun Elkarteko presidentea

“Kafe antzokia berri guztiarentzat izango da onuragarria”



Andoni Etxeberria Musika Eskolako presidente aukeratuko dute aurki.

G. Kafe antzokiaren beharrik badago?

E. Kafe antzokia Jardunentzat ez ezik herri guztiarentzat da onuragarria. Kultur eskaintza batentzako gunea izango litzateke. Bestalde, gaur egun Jardun eta Berrigarako bulegoak he-

rriari zehar sakabanatuta daude eta guztiak toki batean kokatzea beharrezkoa da Jarduneko bazkideekin harremanak bideratu eta bultzatzeko. Kafe antzokia ez ezik Jarduneko egoitza ere izango da eta bazkideentzat erreferentzia bakarra.

G. Une honetan Musika Eskolako behin behineko presidentea zara...

E. Orain dela sei hilabete zuzendaritza berria aukeratu zuen batzar orkorak eta ni bertako kide izateko aukeratu ninduten. Harrezkero, abendu hasieran dimisioa aurkeztu zuen arte, Pili Otadui izan da presidentea eta ni presidente orde. Gabonetako oporrak pasatu ondoren, zuzendaritza bilduko da eta, seguruen, presidente aukeratuko naute. Jarduneko presidente kargua laga egingo dut hurrengo batzar orkorrean.

G. Musika Eskolako zuzendaritzan zaudenetik zertan aritu zarete?

E. Musika Eskolako sorreratik Orfeoiko, Aritzeta-ko eta Udal Musika Bandako ordezkari bana izan dira zuzendaritzan. Hau ez genuen egoki ikusten, uste genuelako talde hauek ez zeukatela zertan hartu beharrik Musika Eskola barruko kudeaketa edo antolaketari buruzko erabakirik. Honekin ez ditugu apurtu nahi Musika Eskolaren eta herriko beste musika entitateen arteko harremanak, horiek bultzatzearen aldekoak gara. Aurrera begira, eskolako barne antolaketari arreta gehiago eskainiko diogu. Musika Eskolan kanpora egindako ekitaldiei eman zaie garrantzia eta, behar bada, barruko funtzionamendua ez da gehiegi zaindu. Bestalde, arlo pedagogikoan zentratu beharra daukagu, hezkuntz erreformak eskolari eragin diolako. B

“Musika Eskolan kanpora egindako ekitaldiei eman zaie garrantzia; barruko funtzionamendua ahaztuz”

Labegaraietako Industrialdeako urbanizazio lanak hasi dira


Lehen pabilioia martxorako prest egotea espero da

Bergarako Industrialdearen proiektuak aurrera darrai eta aste honetan bertan Victoriano Gallastegi alkateak BERRIGARARI adierazi dioenez, martxorako lehen pabilioia martxan izango da Labegaraietako Industrialdean.

Joan zen abenduaren 18an Construcciones Amenabar enpresak eta Udalak Industrialdea urbanizatzeko lehen fasearen obrak hasteko akordioa sinatu zuten. Lanak hasi dira dagoeneko eta 1998 urtearen azkeneko, industria pabilioiendako 8.300 m² eta bulegoetara zuzenduko diren beste 3.500 m² prest izango dira. Halere, esan bezala, udaberrirako lehen pabilioia eraikita izango da. Aipatutako lanen hasierako aurrekontua 186 milioi pezeta ingurukoa da.

Urbanizatuko den lurra baino eskari gehiago

Lehen fase honetan urbanizatuko den lurra okupatzeko baino eskari gehiago jaso dira. Karmelo Azkoitia Bergarako Industrialdeako gerentearen hitzetan, "orain arte jasotako eskaera guztiak enpresa txikienak dira, 300 eta 1.000 metro karratu bitartekoak, eta dagoeneko 12.000 metro karratu betetzeko eskakizunak jaso ditugu". Halere, alkatearen esanetan, badira 10.000 eta 20.000 metro karratu hartze-



Lehenengo Zerrajerako eraikuntzaren egitura gorde egingo da.

ko prest agertu diren enpresa batzuk ere. Alkateak ez du aurreratu nahi izan eraikiko diren lehen pabilioietan ze enpresa kokatuko diren: "gerta daiteke eskaria egin duten edota interesa agertu duten batzuk, gero Industrialdean ez kokatzea, beraz, hobe da ezer ez aurreratzea".

Industrialdeari garrantzia

Industrialdeak izango duen azalera osotik (100.000 metro karratu) %35a promozio publikoaren bitartez garatuko da fa-

se ezberdinetan eta gainontzeko industri lurzorua Kuxta eta Lucio Arregi, promotore pribatuen esku geratuko da.

Begarako Udalak Industrialdeari garrantzia haundia eman dio eta legealdi honetan Labegaraietako Industrialdeaz gain, San Juan eta Murinondokoak ere bultzatu nahi dira. Horretarako, Udalak soziedade anonimo bat sortzeko asmoa duela aurreratu digu alkateak: "legealdi honetan oinarriak finkatuko ditugu eta pertsona bat horretan lanean jartzea da gure asmoa.

Herrian lana sortzea da gobernu talde honen erronkarik nagusienetakoa" adierazi digu.

Bukatzeko, etorkizunean egingo diren errepide berriak direla eta, Bergara oso ondo komunikatuta geratuko da alkatearen arabera: "Labegaraietako industrialdetik gertu Beasain-Durango errepiderako eta Eibar-Gasteiz autopistarako errotonda bat kokatuko da". Bestalde, Hondartzan kokatuko den autopistako bidesaria ere San Juango industrialdetik gertu geratuko dela azpimarratu du. B

Orain arte Industrialdean kokatzeko jasotako eskaera gehienak enpresa txikienak dira, 300 eta 1.000 m² artekoak



Angiozarren datozen hilabeteetan hainbat hobekuntza lan egiteko erabakia hartu du Udalak.

Angiozarren Beheko kalea eta frontoia konpontzeko bidean

Udaberrian zabaltze lanak Beheko kalean

Angiozarko Beheko kalea urbanizatzeko lanak udaberrian hasiko dira. Hala erabaki zen, aho batez, 1997ko azken Plenoan. Udala eta Angiozarko bost bizilagun akordio batera heldu dira, azken hauek euren terrenuak laga dituztelarik obrak egin ahal izateko. Beheko Kalea urbanizatzeko asmoa aspaldikoa da.

Kalea oso hestua da eta goian aipatutako bost bizilagunek lagatako terrenuei esker kalea zabaldu ahal

izango da lehen fase batean. Behin lan horiek egin ondoren, duela hiru urte erretako etxe baten berraitzeari ekingo zaio.

Gaur egun, kalearen hestutasuna dela eta, ezin dira lan horiek burutu, kamioiak ezin baitira bertaraino heldu. Kale osoa asfaltatzeaz gain, kanalizazioa egingo da Angiozarko Beheko kalean. Obra hauen lehen faseak 13 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka.

Bestalde, urte berriak Angiozarko frontoiaren hobekuntza ere ekarriko du. Proiektu hau ere dexente atzeratu da baina Hirigintza Batzordearen arabera lanak lehen bait lehen hasiko dira. Frontoia estali egingo da eta paretak konpondu eta aldagela berriak eraikiko dira. Lanen presupuestoa 63 milioi pezeta ingurukoa da. Angiozartarrek sarritan eskatu dute lan hauek egitea, frontoia nahiko egoera kasarrean baitago.

Antzuola: ipuin mitologikoa Interneten

Zapatuan eguerdiko 12:00etan Antzuolari buruz Interneten egiten ari den lana aurkeztuko du Antzuolako udaletxean Angelo Caccioli italiarrak. Herri birtuala proiektuaren barruan, Caccioli ipuin mitologiko bat eratu du herrian izkutaturik dagoen kanpaia eta bi anai hungariarren istorioarekin.

Dirudienez, hungariar hauek urrezko kanpaia aurkitu zutenean berau hartzeagatik zahaitz bihurtu ziren eta kanpaiak bertan darrai oraindik.

Bildots tripak Aizpurutxun

Bergarako udaltzaingotik jakinarazi ditugenez, joan zen zapatuan 800 eta 1.000 bildots ingururen tripak aurkitu zituzten Aizpurutxuko errekatxo baten ondoan. Bildotsen tripak Beasaingo hondakindegira eraman zituzten eta Osasun Sailak bildots hondarrak nork jaurti zituen eta bildotsak non saldu ziren jakiteko ikerketa ireki du.

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



**DEBA
GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
☎ 76 21 80-76 06 37

Bolintxo

O K I N D E G I A

domeketan zabalik
eta zapatu
arratsaldeetan 17:00etatik
20:30etara

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

Udaletxe atzealdeko adokinen arazoari irtenbidea topatu nahian dabil Udala

Udaletxe atzealdean autoen abiadura murrizteko zer egin ez dakiela dabil Udaleko gobernu taldea. Gogoratuko duzuen moduan Gabonen atarian zeharkako harrizko banda batzuk jarri zituzten adokinen ganean, baina handik egun gutxira berriz ere kendu egin behar izan zituzten, autoentzat benetako oztopoa zirelako eta gauzak konpondu beharrean okertzeko arriskua zegoelako.

San Pedro kalean, Udaletxe atzealdean, adokina jarrita dago orain dela bi urtetik, baina arazoak izan dira harrizkoak mugitu egiten direlako. Zoruan adokina jarri zuen Amenabar enpresakoen esanetan, autoak tarte horretan abiadura azkarregian ibiltzen direlako mugitzen dira harrizkoak. Arazoari irtenbidea topatu nahian dabilta aspalditik eta txapa bat jarrita dago, autoak polikiago ibili daitezten.

Zoruan jarritako zeharkako harrizko bandak kentzeko erabakia hartu zuen gobernu taldeak, herritar askoren kezak jaso, benetan arriskutsua zela eta legearen kontrakoak zirela ikusi on-

doren; abenduaren 22an kendu ziren.

Alkateak, arazoari lehenbailehen irtenbidea aurkitu behar zaiola adierazi digu eta Amenabar enpresarekin harremanetan direla

gehitu du. *"leben ere adokina jarrita dago berriko bainbat tokitan eta ez da borrelako arazorik gertatu, onartu arren tarte borretan autoak aguruegi ibiltzen direla"* adierazi du.



Abenduaren 22an kendu zituzten egun batzuk lehenago adokinen ganean jarritako harrizko bandak.

ARTEAK ETA KULTURAK

AISIALDIRAKO PLANGINTZA INTEGRALA ESKAINTZEN DUEN ZENTRUA DA, ANA ORGAZEK ZUZENDUA ETA ARLO BAKOITZERAKO PROFESIONAL ESPEZIALIZATUZ OSATUTAKO TALDEA DUENA.

Arte eta eskulan tailerrak

- Marrazketa eta pintura
- Zeramika
- Ehungintza
- Enkuadernazioa
- Tailagintza egurrean
- Egur eta eskaialazko dekorazioa
- Bolilloak
- Gantxiloa
- Punto-kruza
- Joste-lanak



Monitorea: Ana Orgaz

Izen ematea: Ardatza brikolaketa eta Igartza mertzeria

Ordutegia:
astearte, asteazken eta ostegunetan
15:00-17:00 / 18:00-20:00

Erlajazio eta arnasketa tailerra

Programa

- Erlajazioa eta sorkuntza
- Erlajazioa eta gorputz eta emoziozko espresioa
- Erlajazioaren erabilera bizitza arruntean
- Estresa jaistea eta kontrolatzea
- Kontzentrazio eta oroimena

Helburuak

- Norbere potentzialidadeak garatzeko moduko lasaitasun, erositasun eta konfiantza gunea sortzea

Monitorea:

Ana Gallastegi eta Axier Ariznabarreta
Izen ematea: Etxepare-Bilintx

Ordutegia:
osiraletan 19:00-21:00
launbatetan 10:00-13:00 / 18:00-20:00

Ahots lanketa

Helburuak

- Ahotsa zuzentzea
- Ahotsa zaintzea
- Ahotsari eustea
- Ahotsa garatzea
- Ahotsa indartzea

Monitorea: **Laura Ortigosa**
Izen ematea: Etxepare-Bilintx

Ordutegia:
asteleheneretan 16:30-18:00 / 18:30-20:00



Yoga ikastaroa. Hasierako maila Yogoterapia

- Edozein adinetarako
- Gizon eta emakumeentzat
- Lorik egin ezina, tentsioa, estresa, depresioa eta abar eragozten ditu
- Birika, hezur, nerbio-sistema, zirkulazio, bizkarrezur, eta abarrentzako oso onuragarria
- Nortasuna eta barne energia indartzen ditu

Monitorea: **Gloria Ena**
Izen ematea: Etxepare-Bilintx



Ordutegia:
astelehenera eta asteazkenetan, 10:30-11:45
astearte eta ostegunetan, 10:30-11:45
astelehenera eta ostiraletan, 15:00-16:15

Berrigara

306 zenbakia.
1998ko urtarrilak 9.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 76 03 97. **Faxa:** 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte.

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil,
Mikel Elkoroberezibar. **Maketazioa:**
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina
Romero. **Harpidetzia:** Gorka Elortza.
Testuen zuzenketa: Estepan
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio
kontseilua:** Miguel Angel
Elkoroberezibar, Alex
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin
Elxpuru, Josu Okina, Luis Mari
Agirre, Imangj Sorondo.
Banaketa: xantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga, Oñati).


Portadako argazkia: Jose Oyon.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzunkizunik.

Erakunde hauen laguntza:




■ atrebentzia ezpada

Zer moduz uste duzu jazten garela bergararrok? Dotoreak al gara jazteko orduan?




Enrique Lete

Andrea Oñatikoa daukat eta han ere dotore jaztearen fama euki dugu, lehen behintzat "cuello duro" deitzen ziguten. Jendea ondo jazten du.




German Balanzategi

Inguruko txuloak garela esaten dute eta zerbaitegatik izango da. Batez ere jende nagusia hobeto jazten da; ikusten da jendea arduratzen dela janzerarekin.



Mentxu Irizar

Nik uste dut baietz. Nire ama Gabirikoa da eta berak esaten duenez, duela 40 bat urte etortzen zirenean, jendea oso dotore joaten zen. Eta mantentzen da hori.



Markel Goenaga

Dotore jazteko fama dauka gu baina ez dut uste hainbesterako denik. Inguruko herrietatik, eibartarrak adibidez gu baino dotoreagoak direla esango nuke.



Miriam Murugarren

Nik uste dut baietz, jendeak diru asko gastatzen du erropetan. Baina batez ere jende nagusia da ondo jazten dena, beste herri batzuetan baino hobeto.



Elva Alvarez

Lehen Soraluzen bizi nintzen eta ikusten dut jendea hemen dotoreago ibiltzen dela. Batez ere haurretan igartzen da hori. Ondo ikusten dut jazkera zaintzea.

■ ikuspuntua: elena fernandez

Iragarkiak

Guztia, orain dela hilabete inguru hasi zen, urtero turroia jatera etortzen den mutila etxera itzuli zenean. Bere atzetik, kolonia eta mobil amaigabeek komunikabideak bete zituzten. Noski, Eduk Gabon zioriontsuak opa zizkigun Airtelek ordainduta eta Toys're Us-ek martxora arteko epea eskaintzen zien Olentzero eta Erregeei jostailuak ordaindu ahal izateko.

Baina bukatu dira argi eta amets faltsuz betiko egunak eta errealtateak sabela bete baina patrikak hutsak laga dizkigu. Orain,



zakegu El Corte Ingles-eko urrezko astean.

Egia da, kapitalismoak bideratutako kontsumismo zikin eta amaigabeen bizi garela publizitatearen bonbardeaketa etengabe jasaten dugun bitartean. Egunero, marka, sinbolo eta iragarki amaigabeak igaro-

urtarrileko aldapa "telesaila"ren laguntzaz ere ezin dugu igo eta aldaparen erdialdean urtarrileko beharpenak aprobetxatuz, zuloa haunditu de-

tzen dira geure begi eta belarrietatik, baina egia da gure kontsumismoaren erru guztia ez dela publizitatearena, ez baita guk uste bezain persuasagarria.

Gaur eguneko iragartzaileek, oztipo haundiak aurkitzen dituzte arrakasta haundiko kanpaina bat eskuratzeko. Oso zaila egiten zaie horrenbesteko eskaintza publizitarioen artean nabariak gertatzea. Gainera, merkaturatzen diren iragarki guztietatik oso gutxi gelditzen dira gure oroimenean, asko hor daudela ere igarri ez baitugu egiten. Beraz, nabari gertatzea zaila egiten bazaie eta zailago gertatuko zaie guk produktu horiek erostera bultzatzea. **B**

gutunak

Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, bidal itzazu zure gutunak helbide honetara: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregi z/g 20570 Bergara, edo etorri bertara. Ez dira identifikazio gabeko gutunak onartuko.

BAHIKETA IKASTAROA

Azaroaren erdialdean edo, AEKko euskaltegiko talde batean, ditxosozko ariketa klaseratu zen. Horren helburua ohiturazko aspektua lantzea da. Funtsean, ikasleek bereiztu behar dituzte ohiturak adierazteko erabiltzen diren formak, eta banakako gertaerak islatzen dituztenak; eta horregatik aukeratu behar dute zein den unerik egokiena fikziozko pertsonaia bat bahitzeko.

Klasea, betiko moduan, giro alaian burutu zen. Ez zuen inork ezadostasunik, kexarik, azaldu. IRALEko ikasleak dira, hots, funtzionarioak. Talde hauei administrazioak hileroko jarraipena egiten die; hauetan, ikasleek (euskaltegitik kanpo) beren balorazioak egin ditzaizkete, adostasunak eta kexak adieraziz. Dirudienek, ikasle batek ezegoki iritzi zion ariketari. Bide arruntak baztertuz, El Pais egunkariari igorri zion bere kexa. Ez dakigu zein egunetan bidali zion; baina hain larria bazen, zergatik hilabete baino gehiago itxaron?

Abenduaren 23an, El Pais egunkariak sortutako iskanbila. Orrialde erdia, lehen orrialdeko titularra, kaleko zein interneteko edizioan. Hori bai oho-

rea! Osteen, eta denak batera, kazetariak, politikoeak, Jaurilaritzako bozeramaileak, nor baino nor handiagoak esanez.

Hitz hauekin esan ez bazen ere, AEKko euskaltegi batean, bahiketa egitera bultzatu nahi izan zituzten ikasleak, edo gutxienez bahiketaren apologia egin zuten.

Orain nik hartuko dut El Paiseko kazetariak eta besteek eta politikoeak hartu ez zuten papera:

1) El Paiseko erredakziora ikasle baten kexa helduta, zergatik ez dute ikasle baten iritzi hori beste ikasle batzuenarekin alderatu? Litekeena da, beste ikasleek ikuspegi ezberdina izatea, hots, joku gisa besterik gabe ulertzea.

2) Zergatik ez dute ikertzen (El Pais egunkaria estatuko aberatsenatariko bat da, ikerketak egiteko dirua, langileak eta bideak baditu) ariketa hori berria den edo, aitzitik, aspalditik erabilitako bat? Bakarrrik euskera irakasteko erabiltzen den edo beste hizkuntzak irakasteko materialen artean oso ohiko ariketa ezaguna den?

3) Zergatik ez dute ikertzen, ariketa horretaz gain, horrelako beste batzuk dauden? Ideologi-manipulazioaren susmoa badute, logikoa da pen-

tsatzea era horretako ariketa asko izango dela. Zergatik ez dituzte horiek bilatu?

Kontua da El Pais egunkariak ez duela horrelakorik egin. AEKko prentsa oharra kaleratua zenean, artikulua sinatu zuen kazetariak AEKko bulegora deitu zuen. Barkamenik ez zuen eskatu, baina ikerketarik egiteko denbora barik eta inorekin kontrastatu gabe, kaleratu behar izan zuela esan zuen. Noiz jaso zuen El Paisek ikaslearen kexa. Kasualitate hutsa al da AEK eta HABEK 98rako akordioa sinatu behar zuten egunean kaleratzea?

El Paisek ez zuen egin. Eta beste prentsa-komunikabide guztiak? Eta politikoeak? eta Jaurilaritzako bozeramaileak? Ezta hauek ere. Nahiz eta guztiak jakin ez dela lehenengo aldia egunkari honek AEKri buruzko gezurrak kaleratzen dituen.

Bi aste pasa dira, besterik ez da entzun. Informazioa ez da zuzendu, "egia" ez da baieztatuta.

Dirudienek, Gabonetako argi eta zaratekin ahaztu behar genuen kontu hori. Ni neu ez nago prest.

Nora Palmitano
AEKko ordezkaria

bai, esan!




Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu deitu 76 03 97ra eta sail honetan idatziko dugu zuk esandakoa. Identifikatu gabeko mezuak ez dira onartuko.


Sara Azkaratek deitu digu esateko Masterreka kalea garbitasunaren aldetik ez dagoela batere zaindua. Garbileko kale garbitzaileek baztertuta ei daukate Masterreka kalea, batez ere eskumako espaloia. Eskobarekin ibiltzen diren kale garbitzaileek ez ei dute espaloia garbitzen eta Pertxaneko etxearen ondoan jarritako kartoi eta beira kontenedoreak gainezka egon arren eta espaloi gainean kristal zatiak egon arren, ez ei dute garbitzen. Bestalde, Moiuua plazatxoan mangerarekin pasatzen dute, baina zikinkeria Masterreka kalera ei doa. Sarak dio ez dakiela nori eskatu behar zaizkion kontuak baina kalea ganoraz garbitzea eskatzen du.

tira biraka: alex ugaldel


Tamagochia oparitu zidaten eta nire lagun onena bihurtu zen.



Baina nor zen nire Tamagochiaren lagun onena?




Orain ni ere Tamagochia naiz.



■ asteko menua


Zapo medailoiak kokotxa eta almejekin



JUAN ANTONIO FRANCO
eta IÑIGO LARRANAGA,
Zumelaga jatetxeak

Babeslea:

ezpeleta



ostalaritza-ehunak

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

Bulegoa eta salmentak:
San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 76 28 77, Tf eta faxa: 76 17 09

OSAGAIK (2 lagunentzat)

- 4 zapo-xerra
- 10 almeja
- olio, burrunzalikada bat
- kipula laurden bat txikituta
- irina, koilarakada bat
- 14 kokotx
- fumeta, bi burrunzalikada eta erdi
- marisko saltsa edo tomate, koilarakada eta erdi
- txanpaina, koilarakada erdi bat

PRESTAKETA

- Zapoa albardatu eta albo batera laga.
- Lurrezko kazola batean, oliotan, kipula frijitu bigundu arte.
- Irina nahastu aurrekoari, eta ondoren bota arrain salda, txanpaina eta almejek.
- Irakiten utzi, eta gero, medailoiak eta kokotxak bota. Labean sartu eta 2 minututan eduki. Atera ondoren eragin pixka bat salda sendotzeko, eta perrexila gehitu norbere gustoaren arabera txikituta.

■ bergarako gordailutik


DENONTZAT JAKINGAI

Imanol Sorondo



Orri honetan sail berria hastera doa: "Bergarako gordailutik".

Gordailu izenaren lehengusu eta senitartekoak ipintzen baditugu, berehala antzemango diogu bere gaiari edo mamiari; hauxe: kutxa, biltokia, ganbara, mandioa, altxortegia, azoka. Hitz horiek ondo baino hobeto esaten digute gure arbasoek bizi eta gordetako istorioak direla hemen bilduko ditugunak, bergarakuon izatearekin zerikusia daukatenak.



Ondo dago gordailutik zer edo zer atera eta erakustea, gure oinarriak non dauden ikusteko, nolakoak garen hobeto ulertzeko, eta norako asmoak ditugun egoki aukeratzeko. Sail hau eta datu horiek, labur, erraz, argi eta esanguratsuki ematen ahaleginduko gara. B

■ adituen esanetan

Gabonetako gehiegikeriak

ALBERTO ITURBE, *medikua*

Gabonen osteko ondorioak nahiko ezagunak zaizkigu guztioi eta nagusiki pasa diren egunetako gehiegikeriak hiru puntutan banatzen dira: alde batetik janarietan aldaketa gehiegi izaten dira (gehiegi jan eta oso modu desberdinean egiten da); bestetik, atsedean falta nabaria edukitzen dugu (deskantsatu beharrean konpromezu gehiegiri aurre egin behar izaten diegu eta beraz nekaz eta estresatuta egoteko arriskua dago, lo gutxi egiten baita); eta, azkenik, eguneroko erritmoa erabat apurtu egiten da fetxa hauetan.

Guzti honen ondorioak jakinekoak

dira: janariekin gehiegikeriak, atsedean falta eta buruko desordena. Zer egin? Bakoitza bere erritmora bueltatu behar da. Pendulo efektua saihestu behar dugu ahal bada: gehiegikerien ondorioz ez gara mutur batetik bestera igaro behar, bide erdira baizik. Gehiegikeriak modu normalizatuan konpentsatuko ditugu, piskanaka eguneroko janarietara itzuliz. Dieta mediterranea jarraitzea ondo etorriko zaigu: zereal eta ogi integralak, fruta aleak, entsaladak, deskrematutako esnekiak, arraultzak, arraina edota lekaleak hartzea eskertuko du goputzak. B



Saritutako eskaparateak

Udalak antolatutako eskaparate lehiaketan **Lislorek** eraman zuen aurten lehen saria. Ezkerreko argazkian Alberdi ahizpak saria jasotzen Luis Abajo zinegotziaren eskutik. Bestalde, Bedelkarrek antolatutako botazio popularrean **Agirre** jantxidenda izan zen boto gehien jaso zuena eta botoemaleen artean zozketatutako saria (15.000 pezeta) **Mikel Ugalde** gazteak eraman zuen. Bukatzeko, **Kanela** oparidendak (eskuman) Gipuzkoako Merkatal Ganbarak Gabonetan antolatutako eskaparate lehiaketa irabazi du. Gipuzkoa osoko 197 denda izan dira lehian eta Kanela etxeko ekipamendua saltzen duten denden sailean nagusitu zen. Usue Azkaratek Merkatal Ganbararen diploma eta plaka oroigarria jaso zuen.



Egutegiko argazkia

Gasteizeko Caja-Vital Kutxak kaleratutako 1998ko egutegian **Dani Santos** Pol-Pol Argazki Taldeko kidearen argazki bat ikus daiteke. Epaimahaiak, lanen kalitateaz gain, Arabako argazki errepresentatiboak izatea hartu zuen kontutan lanak aukeratzekoan. Dani Santosen argazkian, ekainari dagokiona, Araia aldean haizeak astindutako galsoro bat ikus daiteke.

ONENA TINTATEGIA

Barrenkale 29 BERGARA

KONDE



Burdinate 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



MAHER Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Urteari agur Aizkorrin

Pol-Pol Mendizale Taldekoek, 1997a agurtzeko, **Aizkorrira** mendi irteera egin zuten abenduaren 31n, goizez. Autobusez 35 lagun irten ziren eta beste hainbat bere kabuz hurbildu ziren Arantzazu aldera. Handik igoerari ekin zioten Bergara eta inguruko herrietako mendizaleek. Aurtengoan 500 bat mendizale izan ziren Aizkorriko gailurrean. Bergaratik beste herri batzuetatik baino mendizale gehiago joaten ei da egun horretan Aizkorrira. Hasi berri den urtean ere eutsi sasoiari!!

Olentzero joan zaigu...



JOKOAN

LAMEk futbolin txapelketa antolatu zuen abenduaren 30ean eta denera 22 bikote izan ziren lehian Ollagorra tabernan. Munduko futbol txapelketa balitz bezala, partiduetan ez zen txantxetarako aukerarik izan eta bikote guztiek taktika landuak erakutsi zituzten. Azkenean Igorrek eta Ibanek osatutako bikotea nagusitu zen eta 25.000 pezeta eskuratu zituzten sari gisa. Bigarren Txori eta Jaso izan genituen (10.000 pezeta) eta hirugarren postuan, berriz, Txupi eta Unai (5.000).



KANTUAN

Gabonei hasiera ofiziala emanez eta tradizioari eutsiz, hilaren 24an, goizean goizetik hainbat talde kalera atera ziren Gabon kantak eskeintzeko. Batzuk beste batzuk baino hobeto baina guztiak beren borondate onenarekin atariz atari izan genituen kantuan eta herriko kaleetan giro bikaina izan zen. Turroia moduan, huts egin ezin dezakeen ohitura...



JOLASEAN

Gabonak haurrentzako direla esaten da askotan eta Kirodegiko jolas parkera edo Agorrosingo igerilekutara hurbildu direnak behintzat primeran pasa zuten bertan antolatutako jolasekin. Hauek ez dira sekula nekatzen...

roldegiko jolas parkera edo Agorrosingo igerilekutara hurbildu direnak behintzat primeran pasa zuten bertan antolatutako jolasekin. Hauek ez dira sekula nekatzen...



ILUSIOZ

Olentzeroren ondoren, urtarrilaren 5ean heldu ziren Bergarara gaztetxoek hain maite dituzten Erregeak. Oraingo honetan zaldiz iritsi ziren Orienteko Erregeak eta herriko kaleak jendez gainezka izan genituen urrunetik eta opari askorekin zetozen Erregeak agurtzeko. Kabalgata igarotzerakoan neska-mutikoen aurpegiak ikustekoak ziren. Elosun ere kabalgata ederra izan zen eta elusuarrak ez ezik, bergarar, azkoitiar eta azpeitiar ugari hurbildu zen bertara. Datorren urtera arte!!!

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala 1



OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



LASA
Jatetxea

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 76 53 09

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 76 13 35

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 76 15 09

**GURIA
Taberna**

Bidekurutzeta 5
☎ 76 20 34

Moda kontuak

Bergararrak jantzien artean

Moda mundua mende honetako giza fenomeno nagusienetako bat dugu eta gaur egungo gizartean diseinatzaileek, erropa markek edota top-model famatuak ere gero eta presentzia haundiagoa daukate. Gure herrian ere badira modaren munduan toki bat izateko ahaleginetan ari direnak.

Edu Mendibil

Laura Ugaldek moda diseinuko ikasketak egin zituen Bartzelonan eta gaur egun CYL, moda intimoari buruzko hilabetekarian ari da estilista lanetan. Bertan lanean hasi baino lehen diseinatzaile gazteei zuzendutako hainbat lehiaketatan saritua izan zen: "Kurrikulumerako baliogarria izan zitzaidan baina lana topatzeko orduan zailtasunak izan nituen gero; textilean izandako krisiaren ondorioz, lana topatzea ez zen batere erreza gertatu eta moda diseinatzaile lanetan, egia esan, baldintza nahiko txarrak ziren. Orduan CYL-en lan egiteko aukera suertatu zitzaidan".

Aipatutako aldizkarian, nagusiki, estilista lanak betetzen ditu: "Komunikabide guztiek modan aditutako pertsona bat edo ekipo bat behar dute datozen tendentziei buruzko erreportaiak egiteko. Ni berez estilista naiz baina, medio txikietan gertatzen den moduan, beste funtzio batzuk egitea ere toka-

tzen zait: aukeratutako gaiari buruzko jantzi egokiak aukeratzeaz gain, argazki saioak antolatu eta produkzio buru lanak egin behar izaten ditut".

Giza fenomenoa

CYL aldizkaria profesionali zuzendutako aldizkaria da eta, urtebeteko

aurrerapenarekin, jantzidendei datozen tendentziei buruz informatzeko helburua dauka. Horretarako ehunak egiten dituzten enprekin edota nazioarteko ferietako prentsa gabinetekin kontaktuan egotea behar beharrezkoa da. Lauraren arabera, "prentsa gabinete horiek intelektualak eta gizartea kulturalki eta sozialki noruntz doan dakien jende-



Yoana Nieto Donostiako First Models agentzian ari da eta etorkizunean modeloa izatea gustatuko litzaioke.

Joan zen azaroan Miss Gipuzkoa lehiaketan hartu zuen parte, Zestean. JOSE OYON



arekin harremanetan dira. Moda giza fenomeno da gaur egun eta pentsatzeko era desberdinak bereizteko ere balio izaten du askotan. Eta moda egiteko modua aldatzen ari da; lehen dotore janzteagatik egiten zen eta gaur egun beste aplikazio askotarako egiten da. Prentsa gabinete horiek datozen gauza berriak iragartzen dituzte”.

Moda gune garrantzitsuenak, Lauraren iritziz, Paris eta New York dira: “New York-ek teknologia dauka eta tendentzia berriak markatzen ditu. Esan daiteke han ideia berriak sortzen direla eta Parisek gusto hobez forma eman eta aplikatzen dituela. Modan pisu handia duten beste hiri batzuk ere badira: Milan, Londres, Dusseldorf, Bartzelona... Japonen ere gero eta garrantzi handiagoa dauka eta orain indarrean dagoen *manga* izeneko moda guztia adibidez handik dator”.

Bergararron kasuan jazteko orduan nahiko berdintsuak garea aipatzen du Ugaldek: “alde batetik normala da. Jende gehienak kirolari garrantzi asko ematen dio eta horrek nolabait jazteko modua markatzen du. Eta gero mentalidade kontua dago: zerbait diferente jaztekotan, segituan seinalatzen zaituzte. Baina badago jazteko orduan konplexurik ez duen jendea, nahiko aurrerakoa dena eta ikusten da grunge esti-

loak, adibidez, arrakasta handia izan duela. Baina orokorrean jendeari ez zaio gustatzen atentzioa deitzea. *Modernillo* gehiago, modu sofistikuagotan jazen duen jende gehiago botatzen dut faltan”. Donostian diseinu eta moda ikasketak burutu zituen Ainhoa Garitanok ere iritzi antzekoa dauka: “jendea normal jazen da, nahiz eta beti egon hobeto edo diferente jazen dituenak. Europa erostea ere garestia izaten da eta ezin duzu erropaz nahi beste aldatu, arrazoietakoa bat hori izan daiteke”. Donostiako Lanca akademian patrioiak egiten ikasi zuen Ainhoa eta ondoren, Lizarrako Lanbide Hastapeneko tailer batean, klaseak ematen ibilitakoa da, josten zekiten emakumeei patrioiak egiten erakusten. Bere hitzetan, “modak kreatibitatea lantzeko aukera eskeintzen du eta, aurrera begira, antzerki lanetarako jantziak egitea gustatuko litzaidake. Gauza normaletatik kanpo irtetzeko aukera dago hor, patronajea gehiago lantzen da, beste forma batzuk egin daitezke. XV. mendeko jantzi zaharrak egitea adibidez gustatuko litzaidake”.

Gorputz perfektuak

Bestalde, Laura Ugaldek bere lanetatik ondo ezagutzen duen moda inti-

moak sekulako hazkundera izan du azken urteotan: “gero eta garrantzi gehiago ematen zaio barruko erropari. Garai batean medikuarengana joateko orduan bakarrik arduratzen zen jendea eta orain berriro erropekin ondo konbinatzea ere zaintzen da askotan. Sektore polita da eta moda munduan gehientsuen hazi dena, oso gauza politikak egiten dira gaur egun”.

Bere laneko gauzarik gogorrenetakoa *casting*ak antolatzea izaten da, gorputz perfektuak topatzea. Bular taila egokiak, neurriko izterrak eta hanka luzeak dituzten modeloak aurkitzea ez omen da batere erreza: “gaizkile konplexua izaten dut askotan

guztiei defektu bat aurkitzen baitiet” diosku Laurak.

Modeloen mundu selekto horretan toki bat izaten saiatzen ari da Yoana Nieto bergarar gaztea. Yoanak Gipuzkoako miss lehiaketan parte hartu zuen azaroan eta Donostiako First Models agentzian ari da. Dagoeneko 22 desfiletan parte hartu du eta bere hitzetan “pasarela gaineko lana da gehien gustatzen zaidana”. First Models agentzian 1996an sartu zen eta bertan, besteak beste, pasarela gainean ibiltzea, gorputz espresioa, automakilajea edota autopelukeria ikasteko aukera izan du. Bere ustetan, ikasketa horiek egitea beharrezkoa da: “bakoitzak bere estilo propioa izan dezake baina halako akademietan nolabait moldeatu egiten zaituzte”.

Kanpora irten

Hasieratik bere etxekoan laguntza izan du Yoanak: “gurasoek beti lagundu didate eta aurrera jarraitzeko animatu izan naute beti. Ez baldin banaiz honetatik bizitzera iristen ez da ezer pasatzen, baina ahaleginduko naiz”. Bere hitzetan, modelo lanetarako bi gauza dira beharrezkoak: altuera (berak 1,77 m. neurtzen du) eta pazientzia. “Pazientzia ezinbestekoa da. *Casting* batean aukeratzen ez bazaituzte ezin zara desanimatu eta hurrengoan suertea gehiago izan dezakezula pentsatu beharra dago. Bestela, akabo”. Aurtengo

“Ideia berri gehienak New Yorken sortzen badira ere, Parisek gusto hobez aplikatzen ditu” LAURA UGALDE

Horrela ikusten gaituzte

SANTI AUZMENDI, Donostiako Auzmendi dendakoa

Nik uste dut probintziako jendea hobeto jazten dela hiriburuetakoa baino. Azken batean hiritarrak klasikoagoak eta herrietakoak ausartagoak dira, prejuizio gutxiago daukate. Donostiarrak askotan beste-ek zer esango duten arabera jazten dira.

Gaur egun orain dela 20 bat urte baino hobeto jazten da nahiz eta jendeak oporrak eta beste hainbat gauzari lehenasuna eman.

DORLETA LASAGABASTER, Arrasateko Lasagabaster dendakoa

Bailarako herrien artean ez dut uste jazkeran oinarrituta diferentziarik dagoenik, guztiok antzera jazten dugu. Hiriburuak ere gertu daude eta berdintsu jazten da han eta hemen. Bailarako jendeak gusto ona dauka jatzeko baina lehen baino diru gutxiago gastatzen da erropetan. Preferentziak aldatu egin dira eta domeketan mezetara joan eta traje edo beroki berria estrainatzeko ohitura galdu da adibidez.

MARGARITA ZULAIKA, Marga jantzidendakoa

Bergarako jendea oso elegantea, dotorea da. Bertako jendea elegantea da berez eta emakumeek ere berezkotasun bat daukate. Lehendik datorren gauza da eta batik-bat jende nagusian eta helduan igartzen da hori. Hemengo jendea oso dotorea da eta Donostiarekin batera, Bergara Gipuzkoako herririk dotoreena dela esango nuke. Oraindik ere badago betiko toke elegante horri eusten dion jendea.

SATXA ZEBERIO, Maya dendakoa

Gurera batez ere gazte jendea etortzen da, batzuetan amarekin batera erosteko ohitura daukate gazteek eta, nire gustorako behintzat, hemengo jendeak ondo jazten du. Diru gutxiarekin ere ondo jatzeko aukera dago baina ikusten da hemen jendeak dirua duela eta gustatzen zaiola erropatan gastatzea. Helduen artean ere ikusten da jendea ondo jazteaz arduratzen dela.

ekainean Madrileko agentzia batean lanean hasteko asmoa dauka Yoanak: "honetan lanean hasteko Madril edo Bartzelonara joatea komeni da, hemen baino lan aukera gehiago dago eta".

Beti ere komentatu izan da, konpetentziaren eraginez, modeloen artean lagunak izatea oso nekeza dela; "lagun batzuk baditut baina bakoitzak berea nahi du eta ezin zara gehiegi fidatu. Faltsukeria asko dago, bai". Jendeak lanbide honek eskatzen duen sakrifizio baloratzen ez duela esaten digu Yoanak: "jendeak pentsatzen du heldu, desfilatu, kobratu eta kitto, hor amaitzen dela kontua. Baina atzean lan asko dago eta jendeak ez du hori ikusten". Normala denez, gorputza zaindu beharra dago; "dieta bat jarraitzen dut eta gimnasia eta igeri egitera ere joaten naiz. Asko zaintzen dut gorputza, kremak erabiliz, solariumera joanez noizean behin, edota ilea ondo izateko produktuak erabiliz. Nire gorputzeko atalik gustokoena? Eskuak, duda barik". Modeloan artean gogokoena Ines Sastre dauka eta diseinatzaileetan, berriz, guztiak omen daukatela zerbait berezia esaten digu: "Ez dut prefentziarik eta desfilatzeko orduan ere berdin dit kirol jantziak edota gaueko trajeak eramateak. Kontua pasarelan egotea da". B

Ezkerreko orrialdean Laura Ugalde. Bartzelonan moda diseinu ikasketak burutu ondoren, gaur egun CYL moda aldizkarian estilista lanak betetzen ditu.

Alboan Ainhoa Garitano. Lizarran patronaje klaseak ematen ibilitakoa da eta etorkizunean antzerki lanetarako jantziak egitea gustatuko litzaiokie.



"Nahiz eta diferente janzten duen jende bat egon, berdintsu janzten dugu gehienok" AINHOA GARITANO

Labegaraietako futbito txapelketa

txinpartak

ZUMARRAGA IRABAZLE

Lagunak elkarteak antolatutako Gabonetako futbito txapelketan Zumarragako taldeak izan ziren irabazleak. Gizonezkoetan, Zumarragakok 3 eta 1 irabazi zieten Lagunakoei. Partidu kaskarra jokatu zuten bergararrek eta Urola aldekoak errez nagusitu ziren. Emakumezkoen taldeak, berriz, bina berdindu zuten Zumarragaren kontra eta penaltietan galdu egin zuten. Emakumezkoek, behintzat, joko ona egin zuten eta penaltien loterian galdu zuten.

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

- 09:30: Igandekoak-Amilotx
- 10:30: La Peña DML-Patatus
- 11:30: SLO-Bayer
- 12:30: Ufala-FAC
- 16:00: Bar Canalejas-A Ze Flaxa
- 17:00: Pagomendi-Agiñaspi
- 18:00: Arloteak-Azpeitxi jatetxea
- 19:00: Mongatxurak-Bildurbarek
- 20:00: Jauja OH Zerezos-Ortzi

- Patatus
- Amilotx
- La Peña DML
- Bayer
- Pagomendi
- Azpeitxi
- Mongatxurak
- Ortzi
- Bildurbarek

DOMEKAN BARRUAN

- 09:30: Txipiron-Polideportivo
- 10:30: Gazteak-EH Biterrak
- 11:30: Matxakategi-Moskis
- 12:30: Aldoka-Uve Bikoitza
- 16:00: Etxagi-Errotagain
- 17:00: Patxaran Team-Indargorri
- 18:00: Eri-Komando Piperrak
- 19:00: MRW-Bar Ganbara

- EH Biterrak
- Matxakategi
- Aldoka
- Moskis
- Indargorri
- Eri
- Patxaran Team
- Komando P

DOMEKAN KANPOAN

- 11:30: La Juve-Manitou
- 12:30: Ganbara Ari Ari-Etengabe
- 16:00: Ezinleike-Amozkibar
- 17:00: Agirrebeña-Artusamak
- 18:00: Shaktale-Guadalest

- Etengabe
- Manitou
- Agirrebeña
- Shaktale
- Artusamak

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Errotagain	25	11
2. A Ze Flaxa Etxagi	24	11
3. Mongatxurak	24	11
4. Pagomendi	19	11
5. Azpeitxi Jatetxea	17	11
6. Ertxagi	15	11
7. Bar Canalejas	14	11
8. Bildurbarek Opel/Lam	12	11
9. Jauja OH Zerezos	10*	11
10. Agiñaspi	9	11
11. Arloteak/Oilagorria	7	11
12. Ortzi	6	11

Bigarren maila

	P	J
1. Agirrebeña Jatetxea	0	0
2. Ezinleike	0	0
3. Manitou	0	0
4. Shaktale	0	0
5. Artusamak	0	0
6. Slo	0	0
7. Bayer	0	0
8. Amozkibar	0	0
9. Fac	0	0
10. Guadalest	0	0
11. La Juve	0	0
12. Ufala	0	0


Hirugarren maila

	P	J
1. Moskis	0	0
2. Mrw	0	0
3. Indargorri	0	0
4. Aldoka Maldoka	0	0
5. Autoberezi	0	0
6. Uve Bikoitza	0	0
7. Jakina Patxaran Team	0	0
8. Matxakategi	0	0
9. Ganbara	0	0
10. Eri Sirimiri	0	0
11. Komando Piperrak	0	0

Laugarren maila

	P	J
1. Ganbara Ari Ari	0	0
2. Igandekoak	0	0
3. Polideportivo Taberna	0	0
4. Gazteak	0	0
5. Erdibiterrak	0	0
6. Txipiron	0	0
7. Amilotx	0	0
8. Etengabe	0	0
9. La Peña DML	0	0
10. Patatus	0	0
11. Usoa	0	0

jokoz kanpo



Mikel Alberdi
ARTUSAMAK

- G. Zer moduz ligako lehen zatia?
- E. Ondo. Partidu bakarra galdu dugu eta primeran joan zaigu.
- G. Txapelketaren antolaketa zer moduz joan da?
- E. Nahiko ondo, gainera partidu gehienak barruan jokatu ditugu eta hori igartzen da.
- G. Arbitraiekin gustora?
- E. Arazorik gabe.
- G. Hurrengo faserako ze helburu?
- E. Talde onak daude, baina lau lehenengoen artean sailkatzea gustatuko litzaidake.
- G. Zein izango da hurrengo fasean izango den talderik indartsuena?
- E. Manitou.
- G. Zure taldeko jokalaririk onena?
- E. Unai Colinas.
- G. Zenbat gol sartu dituzu?
- E. 20 bat.
- G. Real UEFArako sailkatuko da?
- E. Athletic sailkatzen bada, ez zait inporta Real sailkatzea.
- G. Txapelketako jokalaririk onena?
- E. Aitor Anton.
- G. Mundiala zeinek irabaziko du?
- E. Brasilek. Espainia hor ibiliko da.
- G. Ligako jokalaririk onena?
- E. Rivaldo.

gora eta behera



Multzo bakoitzeko irabazleak

Beheko mailetan lehenengo fasea amaitu da eta azpimarratzekoa da Agirrebeña, Artusamak eta FAC taldeek egindako lan ona, euren multzoetako irabazleak izan baitira. Lehen mailan lehenengo itzulia bukatu da eta hasieran gaizki hasi arren, Errotagain da liderra.



Antolaketa batzordea

Gabon aurreko jardunaldia ez zen jokatu Antolaketa Batzordeko kideen arteko eztabaidak zirela eta. Ez da bidezkoa pertsona batzuen arteko ika-mikengatik 46 talde izorratzea eta jardunaldia iragarri ondoren, azken momentuan bertan behera lagatzea. Arazoa konpondu ei da eta txapelketak aurrera jarraitzen du.

argi!

KARNETAK ENTREGATZEKO EPEA ZABALIK

Abenduan zehar jokolari berriak apuntatzeko epea zabaldu zen, ordura arte ezin baitzen jokolari berriak hartu. Halere, aurrerantzean, denboraldi osoan zehar hartu ahal izango dira jokolariak. Horretarako, partidua hasi aurretik jokolari berriaren argazkia eta NANaren fotokopia bat eraman beharko da.

PUNTUALITATEA

Partiduak hasteko puntualitatea eskatu dute antolatzaileek. Normalean taldeak berandu joaten dira; horrela eta bukaerarako ordutegia asko atzeratzen da eta kiroldegiko arduradunei eragozpenak sortzen zaizkie.

KOLABORATZAILEAK

Orrialde honetan norbaitek komentarioren bat egin nahi badu edo zerbait adierazi nahi badu, kiroldegiko arduradunari esan edo Berrigarara etorri besterik ez du.

ESKOLA KIROLA

Kirola eta hezkuntza mundua bat eginik

Herriko bostehun haur Eskola Kirolean

Kirola gure bitzitan gero eta garrantzi handiagoa hartzen doa eta poliki-poliki hezkuntza munduan ere gauza bera gertatzen ari da. Bergaran astebururo 6 urtetik 18 urtera bitarteko 500 haur inguru aritzen dira kirola egiten. Egiten duten esfortzua isladatzeko eta bultzatzeko aste honetatik aurrera astero Eskola Kirolari eskeinitako orri bat aterako du Berrigarak.

Mikel Elkorobereziabar

Eskola Kirola programa herriko ikastetxeek, Udaleko Kirol Zerbitzuak eta kirol elkarteek bultzatzen dute. Denboraldia ikasturtearekin batera hasten da eta Pazkuetara arte irauten du. Denbora horretan adinaren arabera aukera desberdinak dituzte herriko ikasleek. 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrak aurrebenjamin, benjamin eta alebin mailatan daude. Adin horretan haurrak Multikirola programaren barruan sartzen dira.

Ikasturtean zehar saskibaloia, futbol eta eskubaloia txapelketak egiten dituzte. Horretaz gain badmintonean, piraguismoan, igerike-

tan, txirrindularitzan, atletismoan eta pilotan aritzeko aukera dute haurrek. Guztira Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako eta San Martin de Agirre ikastetxeko 238 haur ari dira maila horietan. DBHko lehenengo mailara heltzen direnean infantil mailaren barruan sartzen dira. Maila honetan haurrek taldekako kirol bat eta banakako bat aukera dezakete.

Taldekako txapelketa

Taldekako txapelketa ikasturte osoan zehar izaten da eta ikastetxe bakoitzak kirol bakoitzeko talde bat ateratzen du. Txapelketak Deba Garaia mailan jokatzen dira eta gero irabazleek

Gipuzkoa mailako txapelketetan jokatzeo aukera dute.

Txapelketak futbolean, saskibaloian eta eskubaloian antolatzen dira. Azkenengo urteetan futbola izan da ikasleen artean kirolik aukeratuena eta ikastetxe bakoitzak bere futbol taldea daukan bitartean, beste kirol batzuetan hiru ikastetxeren artean talde bat ateratzen dute. Banakako kirolei dagokionez aurten apuntatu diren kopurua hazi egin da. 16 urtetik gorakoak kadete mailan daude eta hauentzat areto futboleko txapelketa bat antolatu dute. Zapatu goizetan jokatzen dira partiduak eta ikasleak astean zehar 2 edo 3 orduz entrenatzen dira. B



6 eta 18 urte arteko haurrak aritzen dira Eskola Kirolean.



Agustin Aranzabal

Agustin Aranzabal Realeko jokalaria bergararrak Aranzadi ikastolako patioan makinan bat ostikada eman zion baloiari.

Bere eskola denboran ez zegoen gaur egun dagoen Eskola Kirol programarik eta esan digunez, "errekreogan beti futbolean jokatzen nuen lagunekin eta eskolatik kanpo ere beti futbolean aritzen ginen. Ez nuen beste kirolik egiten". Halere, beste kirol batzuk egitearen garrantzia azpimarratzen du: "Futbola gustatzen zaionari futbolean joka dezala; baina beste kirol batzuetan aritzea ere oso ondo dago".

Azken urteetan emakumezkoak futbolean jo eta ke ari dira eta hori ondo ikusten du Aranzabalek. "Batez ere Bergaran emakumezko asko ikusten da futbolean jokatzen eta ondo iruditzen zait". Futbolaz gain, Aranzabalek saskibaloia, tenisa eta golfa ditu gustoko. "Saskibaloian noizean behin jokatzen dut eta base postuan aritzen naiz. Golfean ere ibiltzen naiz. Entrenamendu ostean batzuetan Iñaki Anza masailariarekin Zubietan jokatzen dugu. Zulorik ez dago, baina zulo moduan edozer gauza jartzen dugu eta hor ibiltzen gara" dio Aranzabalek.

Eskola Kirola programan era askotako kirolak praktikatzen dituzte ikasleek urtean zehar

Futbola



Lehen erregional mailako taldeak hasiera-ko itzulia bukatu du Legazpiko Ilintxa taldeari kanpoan 0 eta 2 irabazi ondoren. Nietoren mutilek lehen itzuli bikaina burutu dute eta partidu bakarra galdu dute Hernaniren aurka eta talde horren kontra jokatu dute asteburu honetan Hernanin. Partidu hura istripu bat izan zela garbi lagatzeko asmoa dute BKEko-ek.

Bergaran jokatu diren partiduei begiratzuz 2. Mailako jubenil taldeak Lagun Onaken kontra jokatu du zapatu arratsaldean igoera faseko lehenengo partidua. Domeka goizean, berriz, ohorezko infantilak Reala hartuko du. Partidu gogorra izango da donostiarrek ez baitute partidurik galdu.

Eskubaloia



Lehen maila territorialeko taldeak Hondarribiren aurka neurtuko ditu indarrak asteburu honetan. Lijoren mutilek atzetik hasita 4. postuan daude eta mailari eusteko asko hobetu beharko dute. Lesionatutako jokalaria berreskuratu dituzte eta Gabonetan jokatuako torneoan Aloña Mendi eta Arrasateren aurkako partidua irabazi egin zituzten.

Jubenil mailako taldea, berriz, ezin hobeto dabil eta 3. postuan daude mailaz igotzeko aukera askorekin. Kadete mailako neskak ere bikain ari dira eta 2. postuan jarraitzen dute. Kadete mutilek lehen fasea bukatu dute eta ezin izan dira sailkatu onenei txapelketa jokatzeko. Asteburuan kanpoan jokatu dute guztiek.

Saskibaloia



BKEko saskibaloia talde nagusiak Calahorran jokatu dute asteburu honetan. Calahorra azkenengo doa eta Conderen mutilek derrigorrez irabazi behar dute onenen artean jokatu nahi badute hurrengo fasean. Izan ere 6. postuan daude eta igoera fasea jokatzeko 5 onenen artean sailkatu behar dira.

Bergaran jokatu behar diren partiduei dagokienez jubenil mutilek Iruneko Amigos del baloncesto taldearen aurka jokatu dute. Horrela bigarren faseari hasiera emango diote. Fase honetan Gipuzkoako 18 talde daude eta 10 onenek lehen mailan jokatu dute datorren urtean. Kadete mailako taldeak ere bigarren faseari ekingo dio astebukaera honetan.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Lagun Onak

Bigarren mailako jubenilak. Zapata. 17:15.

Iptintza futbol zelaia.

Bergara-Usurbil

Neskak.

Zapata. 15:30.

Iptintza futbol zelaia.

Bergara-Eibar

Lehen mailako kadeteak.

Domeka. 10:00.

Iptintza futbol zelaia.

Bergara-Real Sociedad

Ohorezko infantilak.

Domeka. 11:30.

Iptintza futbol zelaia.

SASKIBALOIA

Bergara-Amigos del baloncesto

Zapata. 16:00.

Jubenil mutilak.

Mariaren Lagundia.

Bergara-La Salle

Zapata. 12:15.

Kadete mutilak.

Mariaren Lagundia.

PILOTA

Kadete mailako**Bergarako torneoa**

Eguakitza. 22:00.

Ondoren, Euskal Ligako

Junior mailako binakakoa.

Udal Pilotalekua.

Deba Arroko txapelketa

Bergatik, kadete mailan, Aranburu eta Leturiak jokatu dute; jubeniletan, Muguruza eta Redondok eta seniorretan, Muruamendiarez eta Gutierrezek Martitzena. 19:00. Udal Pilotalekua.

ENERITZ MUGURUZA / Igerilaria**"Egunero 10.000 metro egiten ditugu"**

Igerilari bergararra Gasteizko Errendimendu Altuko Zentruan entrenatzen hasi da Euskal Herriko beste 11 igerilari onenekin batera.

G. Zer egin behar da Gasteizko zentru horretan sartzeko?

E. Maiatzean Euskadi mailan proba batzuk egiten dituzte eta markaren arabera 13 lagun aukeratu dituzte. Horrez gain, odola atera eta beste proba fisiko batzuk egiten dituzte.

G. Gogorra da?

E. Bai, baina uste baino gutxiago. Egunero 10.000 metro egiten ditugu. Goiz eta arratsaldean entrenatzen gara.

G. Ikasteko denborarik ba al duzu?

E. Bai, goizean eta arratsalde-

an ikastolara joaten naiz. Saia egin behar da, astia badagokelako. Lagatzen baduzu ezin dira biak aurrera atera.

G. Hiru hilabete hauetan hobekuntzarik igarri duzu?

E. Bai, batez ere proba luzee-tan. Abiadura ez dugu gehiegi landu eta orain horrek inasiko gara.

G. Zeintzuk dira aurtengo denboraldirako erronkak?

E. Betiko moduan Espainiako txapelketarako gutxieneko marka lortzea da helburu nagusia. Urtarrilaren 18an Donostian 50, 100 eta 200 metro krol probetan arituko naiz.

G. Gabonetan asko zaindu zara?

E. Entrenatzaileak zaintzeko esan zidan, baina ez digute bronka handiegirik botatzen.

G. Zer moduz Ordiziako proban?

E. Lehenengo urtea izan da eta esperientzia polita izan da. Halere, goizean entrenatu ondoren, nekatuta joan ginen.



Realeko gazteak nagusi Ipintzan

BKEri nagusitu ondoren, Eibar-Urkori irabazi zioten finalean



Reala izan genuen Gabonetako gazte mailako futbol txapelketako irabazlea.

Realak irabazi zuen BKEk antolatzen duen jubententzako Gabonetako futbol tornea, finalean Eibar-Urko taldeari 2 eta 0 irabazi ondoren. Finalerdian donostiarrek 7 eta 2 irabazi zieten BKEkoei. Bergarako futbolari gazteak borondate onarekin zelairatu ziren baina donostiarren kalitatearen aurrean gauza gutxi egin ahal izan zuten. Beste finalerdian Eibar-Urkok 2 eta 0 irabazi zion Aloña Mendiri.

Mikel Vicenteren alde

Mikel Vicenteren aldeko futbol partidua jokatu zuten Lagunak elkarteko neska eta mutilen talde batek BKEko lehen erregional mailako eta nesken taldeko beste talde baten aurka. Lagunak-kekoek 7 eta 2 irabazi zuten eta euria egin zuen arren erantzun ona izan zuen partiduak. Takilan 200.000 PTA jaso ziren.

Krosean Cuevas irabazle

Asier Cuevas eibartarrak irabazi zuen abenduaren 27an jokatutako Gabonetako krosa. Asierrek 27'36"ko denbora behar izan zuen 9,120 kilometroak egiteko. Lehen bergararrak Aitor Era-

ña eta Aitor Rementeria izan genituen, 30'29" eta 32'00" denborarekin. Mikel Gallastegi, berriz, infantil mailako onena izan zen. Nesken artean Mari Karmen Garcia arrasatearra nagusitu zen.

Nesken futbito txapelketa


Lagunak futbito taldeak nesken futbito txapelketa antolatu nahi du. Horretarako hurrengo martitzenean, hilak 13, 18:45an bilera egingo da Kultur Etxean txapelketan aritu nahi duten

neska guztiakin. Lagunak-ek antolatu izan dituen nesken futbito txapelketek erantzun ezinhobea izan dute orain arte. Interesatutako talde guztiei bilerara agertzeko deia egiten zaie.



☎ 76 20 61

Tapizeriak
Moketak
Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3 ☎ 76 07 37

Eta orain
gazteendako,
umeendako eta ume
jaioberriendako
altzariak



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2. ARRASATE Tf. 79 27 27 / 79 13 55




BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 76 71 19

Gida

98



BERGARA ANTZUOLA

Berrigara

Gida komertziala



Partikularren telefonoak



Intereseko telefonoak

*Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak
200 orrialdeko liburutxoan.*

HILAREN 23AN BERRIGARAREKIN BATERA ETXEAN.

Mila Andueza, Bergarako Orfeoiko presidentea

"Irailetik aurrera 75. urteurreneko ospakizunak"



Milak 80 urte inguru daramatza Orfeoian.

Bergarako Orfeoia 75. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira aurtengo irailean hasi eta datorren urteko irailean arte. Mila Andueza Orfeoiko presidentearekin hitz egin dugu.

G. Bergarako Orfeoia 75. urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatzen hasi zarete dagoeneko.

E. Bai, besteak beste, Orfeoia historiari buruzko liburu bat kaleratu eta musika emanaldiak antolatuko dira.

G. Ospakizunak zergatik hasiko dira irailean?

E. Orfeoia noiz sortu zen ez dago oso garbi eta arazoak izan ditugu data bat aukeratzeko. Orfeoia aurretik Coral Vergaresa zegoen. 1923ko irailean Santanderreko abesbatz lehiaketa irabazi zuen, baina Orfeon Vergares izenarekin lehiatu zen. Orfeoia sorrera zehazteko erreferentzia hori hartu dugu kontuan; beraz, aurtengo irailean

beteko dira 75 urte Bergarako Orfeoia sortu zela.

G. Euskadiko Orkestako perkutsio taldearekin batera lanean diharduzue.

E. Bai, Azkoitia izan ginen Gabonen aurretik eta oso erantzun ona jaso genuen. Martxoan Miramonen izango gara. Lehenengo zatian eurak bakarrik jotzen dute eta bigarrenan, elkarrekin, "West side story" eta beste sei zartzueta.

G. Orfeoiko beteranoenetakoa zaitugu. Lehengo eta gaur egungo Orfeoia artean diferentziarik?

E. Bai, 30 bat urte daramatzat Orfeoia, beraz, Don Romanen garaia eta ondorengo urte ederrak ezagutu ditut. Argi dago batez ere gizonezkoen ahots oso onak genituela lehen baina ezberdin kantatzen genuen, inportanteena zarata ateratzea eta indar askorekin abestea zen; orain, oster, teknika gehiago lantzen dugu eta kantatzen ikasi dugu. David Azurzaren eragina oso nabaria da. **B**

ETBko Euskaraokoa saioa Bergaran grabatuko da urtarrilaren 23an

Hil honen 23an Bergaran grabatuko da ETBko Euskaraokoa saioa. Herriko ikastetxeetako haurrek, Ixiar Oreja eta Aitor Furundarena aurkezleekin batera, abesti ezagunak kantatzeko aukera izango dute San Martin plazan jarriko den eskenatokian. Bestalde, goizean zehar, antzerkia izan-

go da Udal Pilotalekuan. Bergaran grabatutako irudiak hamabost egun geroago emango dira telebistan.


Euskaraokoa astelehenerik eguakitzera emititzen da 20:05etan eta ETBko saiorik ikusienetakoa da, batez ere gaztetxoentzat; bigarren ikasurtea du pantailan.

Juan Martin Elexpuru, Debako Tene Mujika ipuin sariketako irabazle

Juan Martin Elexpuru idazle bergarrak Debako Udalak antolatzen duen Tene Mujika ipuin lehiaketako lehen eta bigarren sariak irabazi zituen joan zen zapatuan. *Despedida* eta *Buelta datorrenean* izenburuko ipuinengatik 175 mila pezetako saria eskuratu du Juan Martinek, lehenengo baka-

rrik, oinarrietan bakarra jaso daitekeela zehazten da eta.

10 orrialdeko ipuinak dira. *Despedidan*, ezkontzera doan pertsona baten eta bere lagunaren arteko gora beherak kontatzen dira; *Buelta datorrenean* ipuinean, oster, Gerra Zibilean zauritutako aita eta 10 urteko seme baten artekoak.



San Juan auzoa, Elgetarako bidea, Bergara. Tf. 76 35 51.

Tartufo jatetxeak bere bezeroei:

Neguan, igande eta jaiegunetan 14:00etatik aurrera enkarguz bakarrik emango dugu.

kronika

Zazpi Eskale Bergaran

Gabon jaietako azken kontzertua Jam aretoan

Gabon jaietan musika emanaldi ugari izan ditugu: Gabonetako kontzertua, La Parranda, Xabier Montoia, Chucho, Zein, Oskorri, Su Ta Gar, Saturno, Fucking What!, Zazpi Eskale...

Eneko Azkarate

Zazpi Eskalek eta Oihulari Klown antzerki taldeak 200 bat lagun bildu zituzten joan zen zapatuan Jam aretoan. Jardunek eta Akulu-AEK Euskaltegiak antolatatu zuten emanaldia.

Bertan bildutakoek ikuskizuna eserita jarraitzeko aukera izan zuten, aretoa kafe antzoki erara egokitu baitzen, mahai borobil eta kandela eta guzti; inguru atsegina eta aproposa antzerki-bertso-musika saioa ikusteko.

Oihulari Klowneko Marrubi (Axen) eta Filipok (Melo) Afrika, Tarzan, edota nazkatzearen inguruko klownferentzia eman zuten. Ia ordubeteko saioa, luze-egia behar bada. Oihularikoak azkenal-

dian nonahi ikusi ditugu eta zapatuan Jamera hurbildu zirenetako asko aho zabalka zebilen bukaerarako...

Orduerdiko atsedendia ostean, Zazpi Eskaleak taularatu ziren. Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Josu Zabalak gidatutako taldeak "Barrenkaleko Bluesak" disko kaleratu berriaren 12 kantutak eskaini zituzten. Amaieran aurreko diskoko hiru kantu ezagunenetari-koak eskaini zituzten bisean.

Esku-soinua, bibolina, perkutsioa, baxu elektrikoa eta kontrabaxua, Unai eta Igorren ahotsaren lagungarri (hau-ek txistua eta danbolina, aho-soinua eta turutak ere erabili zituzten). Ikusle-ak gustora geratu ziren, batez ere Durangaldetik etorritakoak, bertakoak baino zaratatsuagoak. Emanaldiaren unerik ederrenak, *Morotik* eta *Bihar erretiratzen naiz betiko* abestietan, eta Igor eta Unai taula gainetik jende artera jeitsi eta bapateko bertsoak bota zituztenen. B



Zazpi Eskale taldeak Barrenkaleko Bluesak bigarren diskoa aurkeztu zuen Jam aretoan joan zen zapatuan.

erreseinak



Juan Martin Elexpuru
Fraixko eta Galtzagorriak
Haurrentzako nobela laburra

Bere gurasoekin eta aitajaunarekin Urbiara eguna pasatzera doan Fraixko, aldapan gora doala, nekatuta, atzean geratzen da. Lainoa sartu eta galdu egiten da eta lurralde misteriotsu batean sartzen da. Bertan, Basajaunarekin, Marirekin eta Tartalorekin aurkitzen da. Heroi amerikarren aurrean, euskal mitologia eta ekologia errebindikatzen ditu Elexpuru bere zortzigarren liburu hone-tan. Julian eta Martin Ezenarro osintxuarren marrazki eta guzti.

- Txalaparta. 82 orr. 950 PTA.



Fermin Muguruza
eta Dut
Ireki atea
Rock

Kortatu eta Negu Gorriak talde enblematiko eta ospetsuetako liderra, Hondarribiako Dut ("Dut" eta "At") taldearekin elkartu da oraingoan. Victor Jararen omenezko diskorako bildu ziren, baina CD oso baterako adina kantu landu eta "Ireki atea" kaleratu zuten abenduaren lehene-tan. Durangon diskorik salduenetako-koa izan zen. Diskoa Biarritzen grabatu zuten azaroan, Xabi Pery Itoizeko azken kitarra-jolearen estudioan eta Mikel Laboaren eta Todos Tus Muertos edota Lumumba taldekoen laguntza izan dute. Fermin Muguruza-ren melodia garratzak eta Dut taldearen erritmo basatiak bat eginda.

- Esan Ozenki. 2.350 PTA.



ZABALA SAGARDOTEGIA

Aduna

Aste osoa zabalik.

Igande eguerdietan enkarguz bakarrik.

Aduna Tf. 69 07 74

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuin

1. Maisuari dagokion trebetasuna. 2. Santutegi batera erromerian doana. Lehenengoa. 3. Naukate. Tona. Kontsonante errepikatua. 4. Hareazko meta. Garai. 5. Idi, hitz elkarketan. Nire. Bokala. 6. Zelatan ibiltzen dena. 7. Areagotzeko partikula. Azkenekoa. Itxura. 8. Polit. Barazki mota. 9. Bizkaiko herria. Röntgen. Uharteak. 10. Erail. Ortze.

Goitik behera

1. Mendigoizaleak. 2. Araudiak. 3. Gipuzkoako hiria. Infin., lortu. Bokala. 4. Apaizen jantzia. Argi, hitz elkarketan. 5. Haur. Bi egun barru. Uranioa. 6. Infusio mota. Garra. Naizen hau. 7. Asto arra. Arazo hitzaren kontsonanteak. 8. Euskal atzizki femeninoa. Ikur. 9. Bokala. Holmioa. Iparraldean, esna. 10. Gura. Zorro haundi.

Soluzioa

10. Nahia Zaku.
9. U. Ho. Atzar.
7. Astarra. Rz. 8. Sa. Senale.
5. Ume. Etti. U. 6. Te. Sua. Ni.
3. Iun. Lor. A. 4. Sotana. Art.
1. Mendizalea. 2. Arautegiak.
Goitik behera
Ea. R. Itak. 10. Akatu. Zeru.
Ago. Z. Antz. 8. Lirin. Aza. 9.
5. It. Neure. A. 6. Zelataria. 7.
3. Naute. 1. Hn. 4. Duna. Sasoi.
1. Maitasun. 2. Erromesa. A.
Ezker eskuin

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da txabola ezagun honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauek zuzen erantzuteko gauza zaren!

1. Zein da Jardun elkarteko presidentea?
A- Estepan Plazaola
B- Andoni Etxeberria
C- Tomasa Zabaleta
2. Bartzelonako zein aldizkaritan ari da lanean Laura Ugalde?
A- Pronto
B- Don Balon
C- CYL
3. Zenbat urte beteko ditu aurren Bergarako Orfeoiak?
A- 50
B- 75
C- 150

Kaixo lagunok! Jolaserako prest? Hemendik aurrera, Bonofotoaren eta Galde Debalderen erantzun zuzenak emanez gero, sari modura, izen haundiko jatetxe batean afaria izango dute irabazleak eta berak aukeratutako lagun batek.

Jari erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko da, aste honetan **Zumelaga** jatetxean. Aurreko Bonofotoan ageri zen elkartearen izena **Toki-Eder** da eta saria, 10.000 pezeta, **Maritxu Arietaleanizbeazkoak** jaso du. Zorionak!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela astebete baino lehen Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



zumelaga
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA Tf. 76 20 21

Lislore loradendak irabazi du aurtengo eskaparate lehiaketa. Alberdi ahizpek Udaletxeko plaka eta 60.000 pezeta eskuratu dituzte sari gisa. 1994ko San Balentin egunean zabaldu zenetik, Eli Alberdi Lisloren ari da lanean.

Eli Alberdi

Zenbat denbora eman zenuten eskaparatea gertatzen?

Ezin da kalkulatu baina buruhauste ugari eman digu.

Zertan oinarritu zineten?

Bizar Zuri bat erosi eta kolore gorria eta berdea konbinatzen hasi ginen.

Urtean zehar zenbatero aldatzen duzue eskaparatea?

Lau bat aldiz edo...

Zenbateko garrantzia dauka eskaparate polit batek?

Nahikoa, deigarria izan behar du, jendea erakartzeko.

Zer egin duzue sariarekin?

Kontu korrontean sartu, beti dago gasturen bat eta.

Gabonetako loterian dirurik irabazi duzu?

Ez dut jokutzen.

Lorerik gustokoena?

Orkideoa.

Lorak bota ala jaso?

Biak. Hitz ederrak esatea ere gustatzen zait. Eta jasotzea tokatzen bazait lotsatu egiten naiz.

Loren esanahiari kaso egiten diozu?

Bai. Jendea aholkatzeko ere ondo dator.

Maiteari, zein lore?

Larrosa gorria.

Lagun minari?

"Lilium Star Gazer" izenekoak.

Eta etsaiari, kontra duzunari?

Kardua edo kaktusa.

Zergatik jarri zenuten loradenda?

Beti gustatu izan zaizkidalako lorak.

Loradenda izanik, alabari Erroxen jarri behar...

Nire amandarearen izena zen.

Kointzidentzia hutsa.

Lorak saltzeko sasoirik onena?

Udaberria.

Eta txarrena?

Urtarrila eta uztaila.

Gabonetan lora asko saltzen dira?

Gero eta gutxiago, Bazko lorak batez ere.

Maiteminduen eguna igarriko da...

Baaa!!! Egun polita da.

Modan dago lorak oparitzea?

Modan ez dakit baina oparitzen dira.

Emakumeak ala gizonak etortzen dira gehiago?

Emakumeak.

Beste dendaren bat izatekotan zer?

Belardenda bat.

Olentzerok zer ekarri dizu?

Ezer ez. Bueno bai, eskaparateen saria...

Gabonetako egunik onena?

Gabon Zahar eguna.

Gabon osterako lagatako zeozer?

Alabarekin eta dendarekin nahikoa. B



ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

ZUBIETA

elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA,
ERA GUZTIETAKO
INSTALAKUNTZAK.**

Kruz Gallastegi 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra,
poliuretanoa... Leihoak,
ateak, manparak...




**Eska ezazu
aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14 behea
BERGARA
Tf.: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 76 18 49



Igeri elkartearen hastapena

Hona hemen Bergara Igeri Elkartek izan zuen lehen taldea. Erretratu 1974ko udan ateratakoa da eta gaztetxoek 9-15 urte bitarteko adina zuten orduan. Garai hartan, Jesus Jauregik zuzentzen zuen taldea lehen garaipenak lortzen hasi zen. Jesusek ondo baino hobeto gogoratzen du hasiera hura eta bere esanetan, "taldean oso giro ona zegoen eta neska-mutilek izugarritzko gogoia erakusten zuten. Oraingoak baino gogoragoak ziren, gehiago sufritzen zutela esango nuke". Speedo eta Turbo bainujantziak ziren orduan modan eta euren markak hobetzeko ahalaginetan jo eta ke entrenatzen zutenak hauek dira, ezkerretik eskumara:

Zutik: Eli Linazisoro, Arantxa Iturbe, Aintzane Arizmendi, Josune Alberdi, Lurdes Gonzalez

(altuena, atzean), Miren Gurutze Arana, ezezaguna, Nerea Unamuno, Idoia Urrutia, Matxalen Azpiazu, Iosu Ibabe, Itziar Aldekoa, Javier Pardina, Gorka Linazisoro, Martin Azpiazu eta Andoni Narbaiza.

Makurtuta: Amaia Linazisoro, Iokin Laskurain, Jesus Manzano, Francisco Etxaniz, Iosu Linazisoro eta Sabino Mujika.

Argazkia: Marcial Moreno

Oharra: BERRIGARAN argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero BERRIGARA bertara ekar dezakezu: Errotalde jauregia z/g. Zatoz!

Industria  Industriaren
hornikuntzak UNIFE alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89
Santa Kruz 25 ARETXABALETA
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

Deco-Textil
ZANGITU

Etxerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 76 08 69

 **umelaga**

JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Hona hemen

Gabon osterako bi laguntzaile:

Jai hauen ondoren
**edertasuna eta
harmonia
errekuperatzeko...**



LILURA

Bidekurutzeta 7, 1.
Tf. 76 31 71.

DIESEL
JEANS AND WORKWEAR

Z♥NE
A NATURAL LOVER

Individual
tricot

Pepe Jeans
LONDON

B
BONAVENTURE

LEVI'S

TEDDY SMITH
OLD AMERICAN TASTE

eta zure
**jantziak
berrizteko...**

LAKET

Barrenkalea 35.
Tf. 76 03 98.

muebles

ARKAUZ

**Erakusketaren
berrizketa**

**ALTZARIAK-DISEINUA
APAINKETA**



**LARUNBAT
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

ARETXABALET

Araba Etorbidea, 20 • Tel. eta Faxa: 79 23 51